

EUZADI

MIREN DEUNA

Entzun zeure jayetz - egunian dagitzudan otoyá

Ane ta Jokin senar emazte Guraso deunen umia, Gaurko egunez ludiratuá Zifian Miren Donia, Zorun guztien iturburuá Ze jayo zifian unia, Au dala-ta gaur zeru goyetan Eztegu aundiayak círa, Arren, ba, ortik abegi on bat Bialdu Euskal-Erria.

Ortze goyetan izarrík esta, Ez baratzetan lorerik Miren Jayone Zeruko Ama, Zu zaran baizen ederrík, Sortu ta jayo bizi eta il Zifian orban bagarík Algustidunak Bere amatzat Eginia zariarlarík Ezin leiteke beste bat izan Ederrago ez obarík.

Argi guztien argia eta Lore guztien loria, Urtei Deunaren baratza guren Usaintu bardin bagia, Jakidiaren itxaso sakon Ouez ona baño obia Eskar guztiak zeugaz dozuzan Miren sorkundez garbia Eusko abenda sendotu eta Jagon gure Abertia.

Agur Josu'ren ta gure ama Eta zaindari bakarra, Agur zeruko eguzki eder Agur goizeko izarra, Goi-beitako Erregina ta Gure yagola zeu zara, Biurtu gaizuz eskeldun orok Zentzundunak izatera Jainkoarentzat izan gaitzean Euskal-Erriaz batera.

E'TAR KEPA.

ERRIETATIK

GOIZPARRA

(Luc. XVII, 11-19)

Beñola Jesus Jerusalem'a yolaia, Samaria'ren eta Galilea'ren erditik yoián. Eta aldairi baten sartzeokoa, amar legu-cun (lepradun) bidera yakoazan, urrutxun geraturik. Eta deadar egin eutsen: Irakasle, erruki zaliguz, esanaz. Ikusi ebanek, esan eutsen: zoaze, agertu zaitze abadengana. Ta yolaiaza, osatu egin ziran. Arreitán bat, bere burua garbi ikusi ebanean, deadarka Yaungoikoa goretziak izuli zán. Eta auspe oñietara yausi yakon, eskerrak emonaz: eta Samari'tarra zan bera. Jesusek itza artuta esan eban: amar ez dira garbitu ala? Nun dira beste bederatzí areik? Itzuli ta Jaungoikoiari gorrespena emon deusunik ez ka azaldu, atzerriat ar bañio. Eta esan eutsen: yagi ta zoaz, zure sinisteak salbatu zaitu ta.

MANARI

EZBIARRA Lengo domekan, Artzubi'ko Ortuoste'tar Santitxu, amaika urtedun mutiko zoliya, Landaluze'ko bere osabegaz basuan artzaiñ ebillela Arranarte'eko gallurretik bera yausi zan, eta oso txarto zauritu zan. Beriala yaso eben, eta Artzubi'ra bere gurasoen etxera ekarri eben. Arreit'o'tar Gotzon osalari bizkorrek egin eutsen lenengo osakuntza. Ta Azken-igortziya (Uztintzi) emon da Basurto'ko Geixote'gira beriala eruen eben. Zerbit abarantza eginda dagoala diñue; eta osatziagaz asko poztko gintzakez.

OTZANDIYORA

Ilonon 21'an Otzandiyon, Arrese ta Beitia olerkari bikaña zanaren omenez egingo yai begikora, emendik be ainbat lagun yuango gara.

OBARA

Asteartian, uste zan lez, ainbat lagun yuan ziran Oba'ko San Andoñi yaire. Yuan ziranak, eleizkizun ederrak eta edozelango yaiyek be etziriala izan da, oozik etxeratu ziran. Oba'ko etxe guztiyaz gauza onez ondo orniduta ei-egozan; eta kanela-antzez ondo estalduriko "arrasko-letxe" gogo-zoquaz oktozera ondo beteti etorri ei ziran... Gau-lenian etorri ziranak santuz, berbie ta zaratie ugeri erabili eben. Eta gozaldian, erdu ziranak be ixilik eziran ibiñ; zarraparrak eta larrapastardak asko ekarri eben...

Gabian errondan da Goizian logure Etxaree mutillak Osasunen gure

Esakun eta bertsu zarrak ezira alperrik... Eta alperrik ezitan berbak nozik-beñi erabiliyagaz ezta ez be gaitzen. Emengo astuen artian be San Andoñi yai izan zan; eta brikzan yokoaldi garrazak egina, deun'ren eguna euren erara polito ospatu eben. Batzuetan, bialra alde batera izteko aitzaki andirik ezta bial izan da... Onango beruakaz zerbit egin bial da ta...

YUAN ETORRI

Emen illebeta ta erdi igarota barikuan yuan ziran Albazete'ra Bustintza'tar Pauliñ abade yauna ta Artea'gar Yosebe. —Emen aldi puzetu bat igarota Villanueva del Arzobispo'ra yuan zan Ane deun'ren Pauliñ Aita. —Gasteiz'era yuan ziran Ozerin'dar Peli, Jainagat'ar Birkide, Ozerin'dar Damene ta Uranga'tar Andere. —Egun batzuk igarota Bilbo'ra yuan zan Ajuria'tar Gotzone. —Galdakoa'ra aurkitzen da Untzalu'tar Errosale neskatua. —Bilbo'ra yuan ziran Ortuoste'tar Iñaki, Goroep'tar Urtsule ta Kistobal. —Domekan, Durango'tik etorrita Azkondo'ko iturri onduko landa ederrian eguna igaro eben, Nabarro'tar Perpeta osalari yaunak eta bere emazte ta umetxak. —Galdakoa'ra yuan zan Asua'tar Miren.

MENDIGOIZALEAK

Igaro zan domekan be mendizale asko igaro zan emendik, Euren artian Landaburu, Oyartzabal, Pinedo ta Lauria; danok Bilbo'ko mendizale erriarik.

EIZARI BIZKORRAK

Lengo asteko larunbatian yuan ziran Erriola aidera eizan (kazan) Artea'gar Toma ta Kapanaga'tar Patxi mutill gaztiak. Txori pillo ederrak ekarri zitezuan.

EESTE ARROBI BAT

Azkiot-arreko atxian, Atutxa'tar Estepan'en basuan, arrobi (kantera) barri bat asi dabe. Aste-onetan lengozas asi círa lanian; eta arri polita dagoala diñue.

DANAK POZIK

Oporrari amabost egunen geigarriya ezarri dauteso-la, eskola-umiak pozarren genetik urtenda lez dabiliz. Okerkeriyak

beti ernai egon Euzko gogua pixtu eta bere alde lana egiteko.

EUZKO IKASKUNTZA

Emen izan degu beren ibil aldian Euzko Ikaskuntza. Udaia eta beste erriko jaun batzuk gertu zeuden beren zafi eta ala Antiguara danok batera igo gendun gure Txistulariak aurretik ditigula. An goian Oñate'ar Ander apaiz jaunak Aita Donosti ospatsuk armoniun lagunduta abestu zuan euzkeraz abesti goxo bat Ama Neskutari. Ondoren otoiñ labor bat, eta gero gure lagun maite dan Lasat'ar Mirel jaunari gazte azkarrak ederkí azaldu zuan Antigu'ko Bazeleizan Eredu eta Edeñtiak.

Gero zertxo bait artu eta alkate jaunak Euzkeraz itz egin zuan Euzko Ikaskuntzan lana goraldiaz.

Aurrezko eder bat ere izan zan, bertako xifegotzi Urribesalgot'ar Pantzeska'k eta beste batek aterata, txalotuak izan ziran danak.

Pozik ikusi genduzan bertan "Elorregi" Euzke' idazle azkarrak (Garate'tar Justa), Barrena'tar Polikarpa, Mendizabal'tar Gaspar, Martinez Zumeta, Aran-tzadi, Belezena, Etayo, Muxika'tar Marka eta beste asko eta asko.

Atsegin izango altziazioen erri ontako egoera txikia, Euzko Ikaskuntzakoeri. ALTZETA.

AZKOITI

EUZKEL EGUNA

Bergara'n igandian degu, entzuten degunez inoiz ez bezelako berotasun sutusia dago EUZKADI danian, egun orretan bertan bitzke, anai abertzale danok bat eginik, euzkeraren egun aundi iri igarotzeko, pozgarria da benetan gure izkuntza maitian alde egun auetan nabaitzen dana, euzkaldun zintzo guztien tartian, abertzaleak eta euzkeltzaleak, jarrai dezagun bide orretatik, beroi degu zuzena, gure oitura eder berdin gabeko galduta dagoenak atzera bitzke, orrela beokin batera gure "Aberri" maitian askatasuna, guk nai degun eran aske.

Euzkeratik euzkeltzaleak, aldegun guztiok igandian Bergara'n bildu bial. Artu zuzete bertan bitzen diran euzkaldun guztiok, zorian agur biotz'or bat nere lagun Azkoiti'ar abertzale guztien nar, berdin bitzke.

Ziñopa Emeteri ta Keledoni Donean basatxoen igandian ospatu zan beren jai aldia, egontzan jaupa nagusia abestua txonitakin, bertara bildu zan biferre bañio notin geiago bate zere Donosti aldetik aske, ziñopa Deun onentzat jaiera geitzen gogotik doa.

MIXIO JAIAK

Izango ditugu txadon nagusian iru egunian, larunbatian illuntzian izango da lenbizi agurtza eta ondoren itz aldia jaupari agurgarri Azpeitia'tar Balendiñek igandian arratsaldian eta Andremarian egunian 8'an berdin, ondoren aterako da ibil-etxera eder bat kaijatera txinatarr jakiz eta abar apanduta; lagundu daigun zerbait emanz aldegakegun eran mixiolari zintzoari, guztiok dakigu zen bat egin bial izaten dute an txina aldi aietan. ERROGATIBA

Arrentzak egiten azi dira luginak naiz ikusirik legorte aundia dagoala euria eskatzen gure Jaungoikoari.

Lekeitio'ko uri politera igandian juango dira eguna igarotzera berebil aundi bat bete lagun, buru gure lagun abertzale Garate'tar Imanol dutela.

EGI-ALDE.

GETXO-ALBORTA

BERGARARA Igandean ezdaulela inor Bergara'ra juan barik lotu; beribilj'ik ezdaikonak, edo berandu gomutau diranak, juan leiti-kez tximistuburdian, Bilbao Atxuri'ko fik, goxean 6,40'en urtetan dau, eta Eibar en nai Maltzag'a'n artu lei Gasteiz'era deyan beribilla ta bederatzik ingururako Bergara'n dagoz.

BESARKATU GAITIAN BERGARAN

Bai besarkatu gaitian, baña ez orain larogeta amaika urte Maroto ta Esparte-ro Euzkadi'n aurka besarkatu ziran lez; ordutik ona zori-txarra baizik ezdogu izan Euzkadi ta Euzkotarrak. Gure besarkadak izan bial dau iraukorrak, gomutau daitezcan gure etorkinak edo ondorengiak 1930 garreneko iraila'ren zazpi gaz esan gaitien, urte orretan eta egun onetan alkartu ta besarkatu ziran gure asaba zarrak; eta zin egin eben, ez atsedetik artzke, Aberri'ren azkatasuna lortu arte.

Gora Bergara, eunki bat amaitu baño len itxartu izan zara zeure losorotik eta losorroan euki zaituan gozagailluan in-carra ayendu dala esan leike. Agur sutsu bat, Berga'n alkartzan geran euzkotar guztiak.

ERRI.

OLABERRI'TIK

SAN JUAN TXIKI JAYAK Jaungoikoak ala naita, egualdi ederrezt eta anaitasunik aundienekin igaro ditugu San Juan-Txiki izeneko jayak, uri poit eta alai ontako Udakal urtero oitura zarrari jarraituz eraldutakauk.

Igaro dan ostegunian eta igandean ospatu dira jai oyek, eta batean eta bestean ozte edo jende aundia izan da inguru erriarrietik etorrita. Lenengo egunean goizean meza nagusi ederra egon zan, emalea izanik Agirre'tar Gabirel txamburua eta laguntzale Aluztiza'tar Iñaki eta Armendaritz'tar Pantzeska apaiz lazkaotarra. Txonitza (sermoja) ederra eta erakuspen aundikoa Aita Altzo Lekarotz'ko buruñurdunak egin zuen gure euzkera garbi-garbian, adieriazta Deun Jon aundiarren bitzita eta erioztza ogoigarriak, oartuz entulzeri biar-biarrekuá zaigula gure asaba zarren oitura, ekanu eta berdiñik ezduñ euzkerari gogor eustea, euzkera dalako gure aurrekoen pitxirik maitagarriena.

Meza ondoren "maiketakoá" egon zan Udaltxian nai izan zuan gusiarentzat urtero bezela.

Arratsaldean euzko erromeri jatorria ikusi genduzan bertako enparantza zabal eta ederrean, txistulariak izanik Idiazabal'goak.

Aurrezko polit bat ere egin zan aurrezko'ria izanik Agirre'tar Joseba txamenskandari (organista) gaztea eta ateskolari Oyartzabal'tar Iñaki "Oletxe"-ko mutill gaztea. Biak egin zuten txik ongi dantzatza ori. Lengoañari aurketu zioten Ordeñeta'ko Garmendia'tar Bitore neskatilla lirain eta apaña eta bigarrenari Lazkao'ko Bitoria'tar Pilare neskatilla gaste ege-

rra. Gero "Angelus"-a arte jarraitu zuan euzko-dantzaketak, pake ta anaitasunik aundienan.

Igandean berriñu ziran jai abek txistu-lariak izanik Lazkao'kuak eta jai ar ere oso ikusgarria izan zan eta albi erri-tako esagun asko ikusi gendun.

AGURTU DITUGUNAK

Jai abetan emen agurtu ditugu beste akoren artean Errasit'ar Joseba Mirena, Bilbao'ko "Euzkerea"-ren zuzendaria bere emazte ta semetxuekin; Lopez-Mendizabal'tar Ixaka, Tolosa'ko euzkeltzale jakintsua; Oñate'ar Mikel, Bergara'tar abertzale sutusia; Otegi'tar Pantzeska, Lasarte'ko euzkeltzale porrotakua; Lasat'ar Joseba, Lazkao'ko osalari euzkeldun jatorra; Iraeta'tar Gonzalo, Soraluze'ko mutil on eta azkarrak eta beste asko orain gogoratzen etzazkizunak.

—Aldi luse bat emen bere osaben ondoan igarota Donosti'ra juan da Etxeberria'tar Deunoro, "batxiller" ikasle pizkorra bere ama onarekin.

ZELETA.

LEGAZPI'TIK

30'gko BATZAR BETIKORRAN BERRIAK

Igaziko larunbat arratsaldian bildu zirean Batzarraun egiten iru gixonak, eta lenagoko batzarrean arturiko erabaki-jak ontzat eman ondorean, lasaikiro jezarria gauza oexek aztertu zituzten. Gipuz-Aidundiak uri onen mendijetan landarak sartziarren egin dituban txindi-eraltziak ontzat eman eta berez oradun. Aseginolaza'tar Iru, mutill gazte gaxoa, erabaki zuten Deun Agate (Santa Ageda)ko osasunetxean sartzia bere gurasuak ordaindutzen dituelarik aren egonaldiko zor edo gastuak, irutik bi, eta bestia Aldundi ta Udalteixe onek erdiz-erdi.

Uri-txindi-kutxaetan txindi yegegi dala ta amaika anei (11.000) laurleko Eras-ketxean sartzia oloztu zuten bertan daukaten iramap eta iru aneiko (33.000) zorra gutxitzearen edo.

Ederki zegoek mutillak. Ia urengo larunbaterako beste ainbeste ingurutzan de-zuten.

DAGONILLA'N EMANKETAK

Igaziko illean jayo direnak sasi dira, eta lau illak ikusi dituzgan: Agirre eta Irizar'tar Joseba Martin; Markinez eta Martinez Miren Karmele; Lizaralde eta Arratzola'tar N. bikiak; Gabiria eta Lubiano'tar N.; Ibaguren eta Soraluze'tar Gotzon eta Olabide eta Irastorza'tar Du-nixi Jon, jayuak. Ilak berriz, Gabiria eta Lubiano'tar Pantzeska Gorgoni; Lizaralde eta Arratzola'tar N. eta Gabiria eta Lubiano'tar N. AGUR

Amendik urrun, Txile'ko lurralde aye-tara juan zaizkigu Santa Maria'tar Josu Biteri'tar Eulale bere emaztia, eta Biteri'tar Joseba onen nebea. Kasteleraz anaya esango genduke, baña euzkeraz diardugun ez, jakitain gaiten ererakadan bat edo bota nai epa'degua. Osasuna ta gertzagaz bixi.

AUR-EGUNA BERGARAN

Atzo, larunbatian, juateko izan bial dute Bergara'tar ango azterketetan "parte" artzke, Brinkola auzoko ikasle txikiak, beuren irakasle Azkoiti'ar jauna buru dala. Zori on-on bat opa dituztego orri.

ZAR-ZALE.

BILBO'TIK

IZPAR TXORTATXOIA

Ostegunean atera zan "Athletic"-ko ostiko taldea Vigo ta Gijon'erako. Igande ta asteleñean illan 7 ta 8'an yokatuko dute lenengo uri ortan, ta 14'an Gijon'en "Real Sporting"-egaz.

—Baita be "Athletic"-ko mendigoizale "Egizkoa"-k eralduta igandean ill onen 7'an zekulako txangoa izango da Anbo-to'ra batzoki ortako bazkide asko euren sendi osagaz juatketan dira. Durango'ra artekoak egiteko bultz berazkoera ere gertau dute 350'entab lagunentzat.

—Zabalune edo "Etsanache"-ko Abes-batzak asmau daben txangoak be goizeko zortziretan urtegu du beren batzokiti tarantetan Castro Urdiales'eako.

—Emen be Bergara'ko euzkal egunera yuateko gar berro nabaitzen da. Iru edo lau tarant beteik urteguo dute igande goizean (J. I.).

—Gaur igandez goizeko amaiketian izan go da, or Udal osteko gora Begoña'ra duan bitzabalean bilbilen lasterketa bat.

—Briñas yaunak emeko erriak etxe'ar milioi bat laurleko utzi dauzko. Jaun onek amaika txiki txindi zabaldu yok erruki etxe, gaxo-etxe ta txiroen artean.

—Berriz'ere emeko Euzko Gastejija zabaldua gelditu da. Poztuten gara.

"ERMU-ZALE"-I

¡Kontxo, kontxo, "Ernu Zale" lagun zarra! urtu edo intzala ta nengoañ da tira, zekula ez baño belu oba eidok eta azaldu eñiat orrait. Milla ta bat esker duduaz euzkal atal ontai bidaldu dautan opa on ta ziononagaitik. Ta orain entzun egik: Eu, mutiñ jar karreñan burua atarateko ueste abil ala? Ia ordua edo dok gero txotxo zirt edo zart egiteko. Arazo ori bere garayan egiten ez ban zango geroago ta zailago bihurtun zala ta zasoiz gomutatea ondo zala bein bago sarriyagotan entzuzgo eutsan ba ik be gure adizkide ontzua dogun "Tabirata-rra"-i ez dok? Ta amaika esan on edo burubidie eman yausubun yaupari be giko ta yator orrek. Ta... bere biziko: "Tabiratarra" aiatu dogun ezkerro, yai arratsaldean baten yuango ete gozak Durango'ra bera ikertu ta askari bat yaten? Aspaldi ez yuat ikusi ta bayaukat gogor bere pilosopkerijak entzuteko. Zer oiñio?

Azkenez diñoat nagiyok alde batera utsi ta ekiteko gogor or yaukogu "Lauaxeta" gastea besuak zabal ta aita baten maitasunaz gusiyok abegi onoz artuteko ta. Ia Bergara'n ikusten gan.

ABEL-ETXE.

MENDARO

Idazki au azaltzen dan inguruan, Bergara bidian izango gara, pozez beterik, ainbat gure anai besarkatzeke.

Emendik goizian batzuk eta bestiak arratsaldian mordoxka bat an izango gara jai oneri bial dan bezelako zaletasuna artzke, jun al deuzten guziok eta ziur nago, askoz ere onura obetakuak, eta pozkiro izango zeratela zekeneta eta oztziago ibillerak ikustera juatia baño.

Emen argitaztera nua azkenengo bit-dutako txanponak.

Unuzeta'tar Pantzeska, 5 laurleko; Al-bizueta'tar Endika, 5; Beitia'tar Mikel, 1,50; Andoaga'tar Andoni, 1,50. Lendik, 28,50. Danera, 41,50.

Berri alai bat eldu da nere berlarria Bizkaya'n ere eraldu dabela EUZKEL-TZALE bazkuna, ekin gogor orrela gure

ele zar au gogortu dedifi, aldi dancetan eta ez gera izan bial ez Gipuzkoar, Birkaitar ab batziki Euzkadi'tarrak, olako bazkunak aberri dancan zabalzen badira eta lana gogor egin? Zei figure aurka? I'TAR P.

Arrese ta Beitia zanaren omenez jaja egiteko

	Lauerleko
Gametxogoioketxea'tar Austin...	835,85
Zamallo'tar Mikel	5
Padilla'tar Zamallo'tar Mauri ...	5
Elgezabal'tar Basili	10
Eguren'tar Kauldi	10
Belaustegioitia'tar Joseba Mirena	10
Azpiazu'tar Jon	2
Egileo'tar Imanol	5
Altube'tar Seber	25
Azpiazu'tar Eduarda	3
Larrinaga'tar Paben	1
Azkuna'tar Jone	1
LaLrrinaga'tar	10
Gorozitza'tar Añdere	10
Elorriaga'tar Eskarne	5
Azku'e'tar Miren	5
Fidel Saenz	2
Kaiku batek	5
Beste kaiku batek	5
Biziola'tar Pantzeska	25
Renteria'tar Gorgoni	5
Guztia	985,85

OTZANDIYO

EUZKALDUN BARRIYAK

Lengo batian izan nintzan Bilbo'ra, egun batzuek igaroten. Onetarik egin baten, batu giñan alkar izketan "Lauaxeta" eta beronegaz egozan iru edo lau euzkaldun barri.

Egun pozgarririk inoz izan badot, au zan bat. Ikusirik euzkeraz izketan an egozan gazte adira (ta asko sendi abertzat ta entzute andikuak) itandu egin neban, euzkaldun jatorrak baziran, erantzunik euzkaldun barri ziralá, euzkera ikastolan ikasiak. Eurariko askok barriz guk jatorriko euzkaldunok baño obeto itz egin ebela.

Egija azaldu gurabadot, esan bial got euzkeldun euzkera ezdikianen maiyen olo yuzten baño, nayago duala ereldum euzkera dakienaz, itzketan egin.

EUZKERA IKASTEN

Orain eunen bat gazte (Luistarrak) batzuko ustia dabe, euzkera ikastera. Gazte onek, gogor dabilaz lanian. Euren artian ikusi neban, geure erriat zintzo dan Iriondo'tar Karla.

Artu beuzere nere poz guztiaz emoten deusudan besarkada.

ABERTZALE EUZKERA EZ DAKIZUENOK

Aberri onetan, abertzale asko dira euzkel erriyalk maite dituzana, euzka'k erriyaren alde odola izuriteko, gertu dagozanak. Aberri onen maitasuna agertzeko, zetan ezanik ez dago euzkeraganako maitasuna euki bialdala. Euzkera ganako maitasuna agertzeko, barriz ez gauza oberik beaur itz egitea baño. Baña zoriarrez au ez da onela agertzen. Abertzale asko ta asko gara gaur euzkera itzik egiten ezdukan ta bezteren bat izketan dagoanien nik ez dakit euzkera esaten dunak. Aua euzkel erriyatarako lotsagarririk andiyena.

Abertzale, ikasi daigun albit basterren euzkera inoz zer esanik euki ez dagian ta danok anaya izan gaitian, bata besteagandik alde barik, dakizun lez gu alkar-egaz ipinten gaituzana, dala gure ama euzkera ta ez daigula beaur baño basterik amasert artu bial. Ots egin daigun danok batera. ¡Ama euzkera! emen gagoz zere seme zintzo gariñak, ta ezkatu daigoyun gure itzuntza maitian danoentzako azkatasuna bestela ez dau erantzunik emongo.

OTXANDIYO

Arrese ta Beitia zanaren egun eder eta ospatsua igaroteko Otxandijora eidu gura dozuenok ez doze jakingo zelako joan-bideak dagozan. Ona emen bide batzuk. Arantzakua goxean urtetan da Bilbo'tik seiral eta berrogeta hostean eta eltzen da Durango'ra; emen Otxandijora'ko bere-billak artzen dira. Berebil bat naiko ez-pada ugabasak beartuak dagoz beste bat iminten Bilbo'ko Arriaga antzerkitoki aurrean bere berebillak urtetan dabe goxeko sortziretan eta eltzen dira Barazar ganera, biala ementik oñez joan beaur da lau mila neurkin inguruan, basoz nai bitzabalek.

Baña atzera etorteko berebil oniek goxetiegi urten dabe Otxandijon. Augaitik ondo izango leitike Bilbo'n bertan berebil batzuek gertateau joan etorriak. Bestela jayak maite baño len egin beaur da ta ituna izanen leitike.

Orreagaitik gogua daukuzuen guztiok emon zuten izenak eta batzordeak ikusiko dauz berebil orreik zelan ipiñi. Bestela biltzian bazoyaze karutxu urteguo dau-te ibiladiak. Amar laurleko. Berebil-letan osterá bost edo lau laurleko gaitik polito joango zarie.

Lan oneri arin egin beaur círa eta ez azkenaroko begira egin.

Bilbotarrak legez beste erri guztiari-koai bere jakin erazi bere jakie gero nartean ibili barik. Ezdaiteia bai bere Bizkai eta Gipuzkoan Otxandijora eldu barik lotu, Arabarrai ez diñautse ezer, onek elduko dir aldractan eta. Jai ederra izango da benetan. Eiebitzako itzaldiak bere izango dira. Olde bizia dago ba ara erduteko. Eupa guztiok! Otxanjiora! ANDIKONA.

JATABE'TIK

Igaziko igandian Bilbao'ko Kostka'tar Estanisia deunaren kongregaziñoko muti-ko txubak emeko txadonara ebikizun bat egiten etorrita egon ziran.

Bibil andi b